PUBLIZITATEA

Iritzia

Existentziaren balantzak

IRATXE RETOLAZA 2017ko otsailaren 05a



Dorrearen eta penduluaren arteko ituna.

ASTEKARIA

Convertido de web en PDF a http://www.htmlapdf.com con el api html a pdf

Amaia Iturbide. Erein, 2016. Poesia

2540. zenbakia
2017ko otsailaren 05a
ASTEKARIA PDFan

BABESLEA
Irizar

Dorrearen eta penduluaren arteko ituna poema-liburuan ugari dira Amaia Iturbideren poetikaren arrastoak: tematikari begira, giza existentziaren zauriak eta ezinegonak ditu hizpide nagusi; sinboloen esparruan, izan badira erromantizismoan maizturiko imajinarioak (desertua, itsasoa, ibaia eta zuhaitza), bainabadira abangoardiak xehaturiko irudiak ere (ausiabartza, hondakinak, harea eta espazio urbanoak). Halaber, komunitate zein nortasun hautsiak bihurtu ohi ditu poesia-gai Iturbidek. Baina, liburu honetan puskek edo atalek ez dakarte gogora osotasun galdu bat, edo errealitate hautsi bat, baizik eta mundua antzemateko modu jakin bat: “Mundua iragarriz bezala atalez atal antzeman”. Puska edo ataletan arreta jarriz, ikusmen angeluak biderkatzera jotzen du. Azken batean, puska urratuekin mosaikoa osatzeko deia egiten du, puskak sormenerako osagai funtsezko bihurtuz.

Iturbidek kezka existentzialak gorpuztera jo du berriro ere; baina, oraingoan nortasun ibiltari, zalantzati zein balantzakorrak hauskor baino sortzaileago irudikatu ditu. Zentzu horretan, itunaren eta orekaren ikuspegi berriak eraiki ditu. Ituna puskak josteko edo elkartzeko ariketa sortzailea da, baita orekari eusteko etengabeko borroka ere: oreka ez baitu zerbait egonkor eta estatiko gisa irudikatzen, balantzaka sorturiko gune ezegonkor gisa baizik. Balantza horretan, munduaren formetan bilatzen ditu bere ibiliak, bere urratsak, bere nortasuna eraikitzeko apurrak: nork bere urratsekin espazioan utzitako arrastoez dihardu, eta baita espazioek zein objektuek jendearengan utzitako arrastoez ere. Ibilbide horretan paisaia urrunak irudikatzen ditu (esaterako, Egiptoko paisaiak zein mitologia egiptoarra ere bihurtzen ditu nortasunean arakatzeko bide); baina, baita paisaia

AZKENAK

CSNk onespena eman dio Garoña berriz irekitzeari

Milioi bat sinaduraren bila, glifosato pestizidaren debekua eskatzeko

Atez atekoak erraustegia geratu dezake, eta

Convertido de web en PDF a http://www.htmlapdf.com con el api html a pdf

hurbil eta garaikideak ere (besteak beste, Bilboko arkitektura garaikidea ispilu du poetak).

Halaber, poema-liburu honetan behaketan zein ikusmenean oinarrituriko ezagutza-bidean arakatu du: “Bizitza arkatzez idatzitako eskuizkribua bailitzan/ irakurtzen duten begiez”. Ikusmena gailentzearen ondorioz, arte bisualek garrantzi handia hartzen dute poema hauetan, eta esaterako, ugariak dira pinturaren inguruko erreferentziak (joera artistikoak, marrazketa-teknikak...). Are gehiago, nortasunaz eta existentziaz aritzeko, mapa bat edota kartografia bat eraiki du, barne-ezinegonak ikusgarri eta ukigarri bihurtzeko asmoz. Min eutsiei forma eman die, eta hain zuzen ere, existentziaren oinazeak arkitektura eta kartografia bilakatzeko trebetasuna erakutsi du beste behin.

JOAN IRUZKINETARA

Kanal hauetan artxibatua: Iritzia | Liburuak

badakite

Rio 2016ko instalazioak, erdi-abandonatuak jada

Bonbardaketa gehiago abiatu dituzte Donbassen



Be the first of your friends to like this

Convertido de web en PDF a http://www.htmlapdf.com con el api html a pdf

Jaso egunero ARGIAko albisteen laburpena e-postan:

Idatzi zure e-posta helbidea

HARPIDETU

EGILEA

IRATXE RETOLAZA

Iritzia kanaletik interesatuko zaizu...

2017-02-08 | Bego Zuza

Atez atekoak erraustegia geratu dezake, eta badakite

Erraustegia eraiki eta hura kudeatzeko kontratua sinatu dute. Atez ateko bilketa desprestigiatuz eta mespretxatuz lortu dute EAJk eta PSEk beren helburua.

2017-02-07 | Txerra Rodriguez

Gero eta gehiago erabili, gero eta gutxiago esateko

Gero eta gehiago erabili, gero eta gutxiago esateko. Honako berba hauek jaurtiki zituen Txepetxek Galizia aldean orain dela urte batzuk. Bertan izan nintzen eta, ordutik, behin baino gehiagotan etorri zaizkit burura. Batzuetan esangura argitu nahian datozkit burura. Beste batzuetan, ostera, egiten duguna prisma horretatik epaitu edo baloratu gura izaten dut.

2017-02-06 | Aloña Jauregi Irastorza

Aralar, Foru Aldundia eta... EH Bildu

Convertido de web en PDF a http://www.htmlapdf.com con el api html a pdf

"Mankomunitatean, 20 km-ko pista sarea egiteko proposamena gelditzeko giltza EH Bilduk zuen eta dauka bere esku, eta erabakitzeko eskubidea duen honetan... kale!"

2017-02-05 | Asisko Urmeneta

Bidasoaz haratago

2017-02-05 | Iñaki Martinez De Luna

Lubakietatik mahaira

Euskalgintzan jakin badakigu euskara normaltzeko gizarte baldintzak ez direla egokienak. Sobera ezaguna zaigu ere euskalgintzaz kanpoko beste horiek –alderdi, instituzio, gizarte eragile edo herritar xumeak izan– asmo horri begira hartzen duten konpromisoa ez dela guk

Convertido de web en PDF a http://www.htmlapdf.com con el api html a pdf

nahiko genukeen bezain sendoa. Horrela jarrai genezake beste hainbat kexu aletzen euskararen normalkuntzaz, baina fokua ez dut “beste horiengan” jarri nahi oraingoan, euskaltzaleengan baizik.

Xede... [+]

2017-02-05 | Asier Blas

Agur Obama

Barack Obamak AEBetako presidente kargua hartu zuenean, barne eta kanpo politika sakonki aldatuko zituela espero zuen askok. Iragarritako promesen artean, gerrekin amaitzeko borondatea zegoen eta askok sinetsi egin genuen.

Gurasoek bere seme-alabarentzat nahi luketeen bikotea da Barack Obama: edukazio onekoa, azkarra, atsegina eta liraina. Hori guztia gutxi bailitzan, dantzan ondo baino hobeto egiten du! Lehen begiratuan enamoratzeko politikaria da Obama, bestela galde diezaietela Bakearen... [+]

2017-02-05 | Iñaki Antiguedad

Poliedroa osatuz

Irakurria dut sinplea dena ez dela existitzen, sinplifikatua baino. Mundu konplexua da gaurkoa, inondik ere, likidoa, eta bera eraldatzen joatea helbide dugunon erronkarik handiena konplexua modu eraginkorrean kudeatzea da, norabide zabal argian betiere. Hortaz, orain arte

Convertido de web en PDF a http://www.htmlapdf.com con el api html a pdf

ohikoak izan ez diren behatokiak, ikusmolde-pentsamoldeak eta ekinbideak behar ditugu. Sozio-politikoan behar ere, saretuak, prozesu batera uztartuak, prozesurik gabe ez baita proiekturik.

Ildo horretan, euskal lurretan... [+]

2017-02-05 | Edu Zelaieta

Botoia

Botoi gorriaren mamuak zeharkatu zuen gure haurtzaroa, gero eta urrunago dagoen 80ko hamarkadan. Nik ordukoaz gogoratzen dudanaren arabera, gerra hotzaren ondorioz, halako botoi gorri batzuk irudikatzen genituen munduko (eta batez ere munduaren) agintari ahaltsuenen bulegoetan. Esan gabe doa, iparramerikarrek egindako pelikulak lagun, errusiarrak hartzen ohi zirela mehatxu nagusitzat planetaren hondamen nuklearra ekartzeko.

Haurtzaroaren mamua berritu dit iparramerikarrek eskaini diguten... [+]

Convertido de web en PDF a http://www.htmlapdf.com con el api html a pdf



2017-02-05 | Irati Elorrieta

Post-bizitzak

Postfaktiko hitza asmatu zen Trumpen kanpainaren inguruan. Alemaniako Hizkuntza Akademiak (Gure *Euskaltzaindia*) 2016 urteko hitza aukeratu du. Postdemokratiko ere asko erabili da. Thomas Morusek *Utopia* argitaratu zuenetik 500 urte bete ziren 2016an; postutopiko ere izan liteke bizi dugun garaia.

Orri gutxiko liburua da Utopia. Irakurleak ez du bertan aurkituko gizarte idealaren irudirik. Liburuaren bigarren zatian deskribatzen den Utopia izeneko uhartean: ez dago jabetza pribaturik. Ez dago... [+]

2017-02-05 | Iker Barandiaran

Gurean bildu, kaka zabaldu

Talde honen izena lehenengoz entzun nuenean, Arrasaten luzaroan hain presente egon den eta Euskal Herriko beste eskualde batzuetan zabaldutako Oi! eszenako beste proiektu bat irudikatu nuen. Gerora kantak entzuterakoan ohartu nintzen Irun aldeko talde honek oso gutxi duela tradiziotik eta, aldiz, askoz gehiago ohiko kontzeptuak hankaz gora jarri eta gugan kritika biderkatzetik. Euskal Herrian badira antzeko helburua duten talde gutxi batzuk,

Convertido de web en PDF a http://www.htmlapdf.com con el api html a pdf

gutxiegi tamalez –ezagunenen artean, Lendakaris... [+]

0 Iruzkin argia

1 Saioa hasi

Recommend Partekatu

Berrienetik hasita

Start the discussion…

Be the first to comment.

Harpidetu Gehitu Disqus zure webgunera Pribatutasuna

DISQUS

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratzeko libre zara, beti ere, gure egiletza direla aitortzen baduzu eta baldintza beretan egiten baduzu.

LAGUNTZAILEAK:

ORAIN GIPUZKOA · EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO · Bizkaia foru aldundia diputación foral

ametzagaiña · ARGIA · antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA · iametza interaktiboa · ADUR software productions · LUDITOYS

Convertido de web en PDF a http://www.htmlapdf.com con el api html a pdf